

Euskal Herriko Bakearen aldeko konferentzia humanitaria

2015ko ekainaren 11a – Asanblada Nazionala / Paris

Jaun andereak,

Lehenik eta behin, euskal preso politikoek bake prozesuan betetzen duten lekua ezagutarazteko Asanblada Nazionalan, Parisen bihotzean hitza hartzeak sortzen didan zirrara agertu nahi nuke. Argi dago Euskal Herriko bakearen aldeko konferentzia hau garrantzi handiko gertakaria dela. Asko gara etorkizunean elkartzeko, elkar entzute eta trukaketa garai hauek fruitu ematea espero dugunak. Asko gara ere, etorkizunean ekintzak hitzen ondorioa izatea espero dugunak.

Une honetan, Frantziako, Espainiako, Portugaleko, Alemaniako, eta Mexikoko kartzela ziegetan dauden ehunka euskal presoak soilik ditut gogoan. Hauek, talde gisara berretsi duten prozesua fase aktibo batean sartu eta lehen fruituak eman ditzan itxoi ten dute.

Jaun andereak, Frantziarako izendatuak diren Euskal Preso Politikoaren Kolektiboko bozeramaleek, batzen gaituen konferentzian zaintzapean present egoteko baimena eskuratzeko eskaria dagokion autoritateari egin ziotela jakinarazi nahi dizuet. Baimen hori ukatua izan zaie. Hargatik, gaurko egunean, baraualdi sinbolikoa egiteko deliberoa hartu dute, gatazkaren konponbidearekiko duten erabateko konpromisoa berresteko eta konferentzia honetan parte hartzen dutenak eta oro har -Euskal Herrian eta harago- bakearen alde dihardutenak agurtzeko. Justizian oinarrituko den bakearen alde.

Murrueen arteko egoera. Zein da?

Euskal preso politikoek bizi duten egoera honela laburbildu daitezke: Aietez geroztik aldaketa baikorrik ez. Presoei dagozkien oinarrizko eskubideak etengabe urratzen dira eta oraindik ere zuzenbidearen arauen aurka doazen neurriak aplikatzen zaizkie.

-Urruntze eta dispersio politikak, euskal preso politikoaren eta haien senideen gehiengoaren errealitatea izaten jarraitzen du. Hara zenbaki batzuk: gaur egun 94 euskal preso Frantziako 26 kartzelatan daude eta 329 berriz Espainiako 45etan. 64 euskal preso Euskal Herritik 1000 eta 1100 kilometro arteko distantziara kokatuak diren presondegietan daude. 124 preso 800 eta 900 kilometro arteko distantzietan dauden presondegietan. Gisa horretako jokabideak, nazioarteko konbentzioen, Europako Kontseiluaren direktiben eta Frantziako barne legediaren aurkakoak dira eta, defentsa eskubideak urratzeaz gain, familia harremana mantentzeko eta tratu hori jasaten duenaren orekarako ondorio kaltegarriak eragiten ditu.

-Zigorren iraupena. Kartzelan eman beharreko denborak, gizalegearen mugak etengabe gainditzen ditu. Euskal preso anitz, espetxe politikarako eta politika penalerako nazioarteko aditu askok “heriotza zigor geldo” gisara definitu duten egoeran bizi da. Gaur egun, 35 euskal preso baino gehiagok 20 urte pasa darama espetxean.

-Kolektiboko gero eta kide gehiagok gaixotasun arazoak ditu. Horietako batzuen osasun egoera oso larria da eta hauek preso mantentzeak heriotza zigor geldo baina ziurrera kondenatzearekin konpara daitezke.

-Espetxe onurei dagokionez, sistematikoki ukatzen zaizkie. Neurri horiek ez dira zuzenbide estatua deritzonaren justiziarekin bateragarriak eta azpikeria politiko eta ultra errepresiboetan oinarritzen dira. Justiziaren izenean hartzen diren neurri horien funtsa, mendekuaren ordain basatia baino ez dira. Ez da beraz justizia, mendekua baizik; eta horrela bizi dira euskal presoak eta haien senideak.

-Mendekua da ere, espetxe administrazioko funtzionarioek iragarritako, antolatutako eta onartutako “armagabetzea” ordainarazten dietenean. Mendeku usaina dabil haien kartzelako korridoreetan...

-Eta txarrena iristeke dago oraindik. Izan ere, Kolektiboko kideentzat etorkizun ilun eta bortitza aurreikusenez gero. Espainiar gobernuak hauteskunde garai hauetan, bere boterea eta pribilegioak kostala ala kostala mantendu nahian, presoak sakrifikatzeko erabakia hartu du.

Urte hasieratik, kolektiboko 12 abokata atxilotuak eta ondotik haien lanbidearen askatasunaren aurka doazen neurri zorrotz pean askatuak izan dira. Kolektiboko kideen osasunaren jarraipena egiten duten Jeiki Hadi elkarteko profesionalak atxilotu, mehatxatu eta berme pean askatu dituzte. Eta azkenik, Etxerat euskal preso politikoaren senide eta lagunaren elkarteko kideak atxilotu eta mehatxatu dituzte. Guzti honek helburu bakarra zuen: presoak isolatu, beraien

hurbilekoekiko lotura afektiboa urratu eta gatazkaren konponbiderako hausnarketa lana burutu dezaten eta ekarpenak egin ditzaten ekiditea.

Espainiar eta frantziar estatuen espetxe politikak helburu hori du: kolektiboa desegin, honen kideak suntsitu eta senideak sufriarazi.

-Bestalde, oraindik haien herritik ihes egin eta erbestean bizitzera behartuak diren euskal herritar anitz badela azpimarratzekoa da. Hauek torturarengandik ihesi joan ziren. Frantses estatuak haietariko batzuk -hamarnaka 80ko hamarkada hasieran- beste herri batzuetara igorri zituen. Ondorioz, arazo horrentzako aterabidea aurkitzea Frantses estatuari dagokio.

Hausnarketarako elementu batzuk:

-Gatazka orok -ondorio larrienak dituztenek ere- konponbidea aurkitzen du. Hori historiaren irakaspena da. Goiz ala berant, Euskal Herrian ere logika hori gailenduko da. Kolektiboko kideek horren konbentzimendua dute eta gaur egun gerla logika mantentzen darraitenek ere ongi dakitela deritzote.

-Bake prozesu batean, gatazkaren ondorioak aztertzea eta tratatzea derrigor eman beharreko urratsa da. Hori ukatzen duenak historia bera iraintzen du. Eta ondorio horien baitan presoek kasua dago. Konferentzia hau antolatu izanak hori baieztatzen du eta Euskal Herriko gatazkaren konponbidean diharduten eragile nagusiak baieztapen horrekin bat datozen. Gertatzen dena da, gatazkaren ondorioen atalari aterabideak emateko boterea dutenek ez dutela gaur arte deus ere ez egin.

-Denbora luzez, eta gaur egunean ere, aparatu judiziala zigortzeko -manipulatzeko esan genezake- erabili duen botere politikoak, gatazkaren konponbidean murgiltzeko eta irtenbidea aurkitzeko betebeharra du. Lehenbailehen, trantsizio justizia eta honek dituen tresnak aztertu beharren gaude, guztion duintasuna zorrozki errespetatuz eta euskal testuinguruari egokitzuz.

-Jatorri politikoak duen gatazkari irtenbide politikoak eman behar zaio. Gogoeta moralak eta oinazearen erabilpen maltzurak Bakearen aurkako trabak baizik ez dira. Kontzienteki gatazkarekin lotura daukaten pertsonen edo hau pairatu dutenen duintasuna -izan lotura zuzena edo zeharkakoa- errespetatua izan behar da une oro.

Kolektiboak egin ekarpeni dagokionez oroitarazi behar da:

-Hemen gogorarazi nahi nuke Euskal Preso Politikoen Kolektiboak, ETAk Aieteko nazioarteko Konferentziaz geroztik hartu duen erabaki estrategikoa behin baino gehiagotan berretsi duela eta gatazka politikoaren konponbidean "eragile eraginkor" (sic) gisara parte hartzeko borondatea irmoki erakutsi duela.

-Bestalde Euskal Presoen Politikoen Kolektiboak, legeek eta hauen aplikazioek, prozesuaren egonkortzean eta honen garapenean berebiziko papera betetzen dutela iragarri du.

-Kolektiboak, gatazkaren jatorri politikoari aurre eginen dion prozesua burura eraman gabe amnistiarik ezin dela eman adierazi du.

Bukatzeko

-Hogeita hamar urteren buruan, errepresio politikek ez dute Euskal Presoen Politikoen Kolektiboko kide gehienak makurtzea eta hauen arteko elkartasuna haustea lortu. Hori hala da. Beren jatorrizko herriarekin lotura sendoa mantendu dute, beren norbanako zein talde duintasunak oso osorik jarraitzen du eta ez diote beren helburu politikoak lortzeari uko egin.

Kolektiboa aitzina egiteko prest eta Aieteko nazioarteko konferentziaren ondotik abiatutako bidetik jotzeko prest agertzen da. Hartara, azken 4 urteetan bake justu eta iraunkorrerako baldintzak sortzeko asmoz lanean ari diren bakegileekin batera, molde arduratsu eta konstruktiboan engaiatzeko prestutasuna erakutsi du.

Baina hori lortzeko berebiziko bi faktore bete behar dira.

Gizartea, bere aniztasunean, bakerako ahaleginean engaiatzen jarraitzea eta prozesuaren bilakaeraren eragile nagusi izaten jarraitzea.

Eta noski, arduradun politikoaren estatusa bere gisa aldarrikatzen duten politikariek, ardura hitzari benetako zentzua eman diezaioten.

“Ardura” postuetan zaudeten jaun andereak, historian ate handitik sartzen ausartu zaitezte, gerla jarrera horiek baztertu itzazue -Ipar Euskal Herrikoek egin duten bezala-... zuen haurrek, gure haurrek bakearen artisau izateko ausardia eduki dezazuen -dezagun- espero dute.

Irlandan, Hego Afrikan, Kanakian, gatazkaren konponbiderako prozesuaren baitan preso politiko guziak askatu dituzte eta erbesterratu guziak etxera itzuli dira. Euskal Herrian ere horrela izan beharko da.

Gatazkaren konponbidean engaiatzeko, Euskal Presoen Politikoen Kolektiboko kideek zituzten beldurrak sublimatzen eta beraien sufrimendu eta erresuminak gaingitzen jakin dute.

Hemendik, Argiaren hiriaren bihotzetik, -ene ahotik-, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak espainiar eta frantziar gobernuari eta eragina duten eragile guzietan bide bera har dezaten eskatzen die. Sufritu dutenei edota sufritzen dutenei zor baitiegu, baina batez ere datozen belaunaldiei zor baitiegu!

Gabi Mouesca